002-Sarrera eta Planaren helburuak

1. SARRERA

Usurbilgo Arau subsidiarioetako A-010 Errazti, A-011 Soroa, A-92.1 Sagastiluze eta A-93 Errastigaina hiri-eremuetako antolamendu xehakatu berria ezarriko da Plan Berezi honen bitartez.

Usurbilgo udalerrian indarrean dagoen araudia 2013 urteko otsailean onartutako Arau Subsidiarioen Testu Bateratua da [AASSTB][1]. Testu honen oinarria 2004 urtean Foru Aldundiak behin betiko onartutako "Usurbilgo Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena" dokumentua da, salbuespenekin onartua. Urte hartatik aurrera Foru Aldundiak ezarritako hainbat moldaketa eta zuzenketa egin behar izan dira, azken dokumentua 2013 urtean onartu eta argitaratu den arte (GAO -172. zk).

Indarrean dagoen araudiak Aginagako A-010 Errazti, A-011 Soroa, A-92.1 Sagastiluze eta A-93 Errastigaina eremuetako antolamendu xehakatua ezartzen du, hurrengo irudian azaltzen den moduan:



1. irudia: Indarrean dagoen plangintzak ezarritako antolamendu xehakatua. Iturria: Plan Berezia.

[1] Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina.

Aipatu eremuetako antolamendu xehakatuak 2004 urteko dokumentuan onartu baziren ere, gaur arte ez dira garatu.

2014 urtean Usurbilgo Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) idazketa prozesua hasi zuen. Prozesu parte-hartzaile horren barruan ("Usurbil Oraina da Geroa" prozesua), besteak beste, Aginagako bizilagunekin hainbat bilera egin ziren Aginagan zeuden beharrak identifikatu eta herriguneko antolamendua denen artean adosteko. Bilera haietan egun indarrean den antolamendua moldatzeko beharra ikusi zen, Aginagako erdigunea biziberritzeko helburuarekin gune bizigarriago eta atseginagoak sortzeko. Bilera horietan egindako lanketaren ondorioz hartu zuen Usurbilgo udalak A-010"Errazti", A-011"Soroa", A-92.1 "Sagastiluze" eta A-93"Errastigaina" eremuetako antolamendua birformulatzeko Plan Berezia idazteko konpromisoa.

Beraz, Plan Bereziaren helburua Aginagako kaxkoaren ingurua berrantolatzea da, gaur egun indarrean den Arau Subsidiarioen Testu Bategina ezinbesteko oinarritzat hartuta, baina HAPO-aren diagnostikoan, aurrerakinean eta parte-hartze prozesuan zehaztutako irizpideak aintzat hartuz.

Bestetik, ingurumen ebaluaketa estrategikoaren arloko araudia honako lege honetan jasota dago: *Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean*, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean* eta *planen eta programen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan*. Aipatutako araudiaren arabera, Plan Bereziaren ingurumen ebaluaketa estrategikoak prozedura sinplifikatua jarraitu beharko du (ikus 8. atala); hala ere, kontuan eduki behar da ingurumen-organoak, ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuari amaiera emateko egiten duen ingurumen eraginei buruzko txostenean, Plan Bereziak ohiko prozedura osatu behar duela ebatzi dezakeela, ingurunearen gainean eragin esanguratsuak izan ditzakeela uste baldin badu.

Dokumentu hau ingurumen agiri estrategikoa da, eta *abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikuluan* ezarritako edukiari erantzuten dio. Dokumentu honekin, ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera, gehi Plan Bereziaren zirriborroa eta legeria sektorialak eskatzen duen dokumentazioa erantsita, organo substantiboak ingurumen-organoari ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuaren hasiera eskatu ahal izango dio (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza).

Dokumentu hau Ekolur Ingurumen Aholkularitzako lantaldeak egin du, honako tekniko hauek osatua: Tomas Aranburu Calafel (Nekazaritza ingeniari teknikoa, Lurralde-antolakuntzan aditua), Alexandra Egunez Zalakain (Biologian lizentziatua eta Ekosistemen biodibertsitatea, funtzionamendua eta kudeaketa Masterra) eta Leire Paz Leiza (Biologian lizentziatua eta Naturaren Konstserbazio Masterra). Egileen nortasun-agiri nazionalaren zenbakia aparteko dokumentu batean erantsi da, informazio osagarri eta konfidentzial gisa.

2. PLAN BEREZIAREN HELBURU ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

Origami Arkitektoek idatzitako Plan Bereziaren helburu eta irizpide nagusiak laburbilduko dira atal honetan.

Plan Bereziaren memorian azaltzen den moduan, aztergai den Plan Berezi honen helburu nagusiak Usurbilgo Udalak Aginagako bizilagunekin landutako prozesu partehartzaileetatik ondorioztatutakoak dira. Labur esanda, antolamenduaren helburua Aginagako erdigunea biziberritzea da, batetik gune atseginagoa eta bizigarriagoa antolatuz, egoera txarrean edo erabilerarik gabeko eraikuntzen eremu bat berreraikiz, eta gainera, etxebizitza eskaintza berria eta erdigunean jarduera ekonomikorako espazioak antolatuz.

HAPOren dokumentu berria idazteko prozesu parte-hartzailetik eta Espazio Publikoaren eta Mugikortasun Iraunkorraren Plana lantzeko bileretatik ateratako ondorioetan oinarrituta eta egun indarrean diren Arau Subsidiarioak kontutan hartuz, Aginagako herritarrek eta udal-ordezkariek osatutako lantaldeak zehaztu ditu Plan Berezi honen irizpide nagusiak:

- Egungo erdigunea, hau da, frontoi estalia, Asisko San Frantzisko Eliza eta Eliza Zaharraren inguruan sortzen den espazio publikoa, biziberritzea, autorik gabeko gunea bihurtuz. Horretarako, autoen zirkulazioa eta aparkalekuak kenduko dira bertatik.

- Behin autoa espazio publiko nagusitik aterata, erdiguneko mugikortasunari eta irisgarritasunari irtenbide integrala ematea, autoentzako ibilbide eta aparkaleku berriak sortuz.

- Auto bidezko mugikortasunari irtenbide integral bat ematea helburutzat hartuta, ontzat ematen da AASSTB-ak Aginagako kaxkoaren goialdean planteatzen duen saihesbide berria. Hala ere, bere bideragarritasuna eta egokitasuna zalantzan jartzen direnez, saihesbide horren trazadura eta izaera berraztertzeko beharra onartzen da.

- Egungo AASSTB-ak planteatzen duen moduan, saihesbide berri horren inguruan etxebizitza berriak eraikitzea begi onez ikusten da, kaxkoa indarberritzeko eta Aginagako belaunaldi berriei bizilekurako irtenbide bat planteatzeko aukera moduan ikusten baita.

- Hala ere, eta aurretik aipatutako saihesbidearen kasuan gertatzen den bezala, Arau Subsidiarioetan proposatutako etxebizitza kopurua eta beren izaera aztertzeko beharra onartzen da. Plan Bereziaren antolamenduak batetik, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libreak konbinatzen ditu, sozialki dagoen eskaera eta behar desberdinei erantzun ahal izateko (ez da etxebizitza babestu tasaturik antolatzen, etxebizitza sozial babestuari lehentasuna emanez), eta bestetik, haien inguruan publikoak diren espazio berriak sortzea eta oinezko loturak indartzea du helburu.

- Proposatutako antolamendu berria herritarrentzako atsegina izatea jartzen da helburutzat kalitatezko espazio publikoak sortuko dituena, zenbait irizpide zehaztuz:

    - Antolamendu berriaren irisgarritasuna eta egungo erdigunearekin izango dituen loturak.
    - Oinezkoengan pentsatzea, autoari eman beharreko espazioa ondo neurtuz.
    - Erabilera eta eraikin berriak proposatzerako orduan, hauek espazio publikoarekin duten erlazioa aztertzea.